

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

EHUren GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

BI MILA ETA ZORTZIKO UZTAILAREN 17AN OSPATUTAKO EHUN ETA HOGETA HEMERETZIGARREN SAIOA

UNIBERTSITATEKO ZERBITZUEN ADIERAZLE-SISTEMA LABORAZIOA.

"Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 Plan Estrategikoaren zein 2008rako aurreikusitako Plan Eraginkorraren arabera agindu teknikoen agiria onartzea, unibertsitateko zerbitzuen adierazle-sistema egitea kontratatze aldera, gehienezko zenbatekoa 60.000 eurokoa izango delarik.

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

- Adierazle-sistemarako hurbilpen bat egitea, jarduerari (uniber-tsitateko zerbitzuek garatutako jarduerak), baliabideei (uniber-tsitateko zerbitzuek erabilitako baliabideak), eraginkortasunari (erabakitako helburuetatik ateratako emaitzak) eta uniber-tsitateko zerbitzuen betetzeari begira, Unibertsitateak gizarteari kontuak eman behar dizkiola oro har aintzat hartuta.
- Unibertsitateko zerbitzuen eraginkortasunaren adierazle-sail bat zehaztu eta bilatu unibertsitateko argitalpenetan eta barneko nahiz kanpoko bestelako iturrietan (irakaskuntza, liburu-tegia, teknologia-zerbitzuak, praktikak enpreetan, argitalpen zerbitzua, zerbitzu informatikoak, unibertsitate-orientabidea, uni-bertsitateak emandako ostatua...), baita beste zerbitzu publiko batzuei dagokienez ere (garraioak, mugikortasuna, ...).
- Emaitzen txosten bat egitea, globala eta zerbitzuen arabera.
- Hurrengo urtaldietarako lan-ildo osagarriak zehaztea, zehaztutako adierazleen sistema osatze eta zabaltze aldera (informazio-iturri berriak, zerbitzu berriak sartzea...).

2.- PROPOSAMENAREN XEHETASUNAK

Eskaintzak honako atal hauek esplizituki adierazi behar ditu:

- Proposamenaren deskribapena.
- Egin beharreko lanaren mugarri garrantzitsuenak.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

- Lanak egingo dituen taldearen curriculuma.
- Lan egitasmoa.
- Erabili beharreko metodologia.
- Lan-taldeko partaide bakoitzak egindako lanak.

3.- LANEN ANTOLAKUNTZA

Lanak enpresa esleipenduneko langileek egingo dituzte, Gizarte Kontseiluaren gainbegiratzearen pean.

Batzorde batek, alderdi kontra-tatzaile bakoitzaren bina ordezkari gehienez osatutakoak berak, kontratuaren helburu diren zereginak gainbegiratu ditu.

4.- LANAK EGITEKO EPEALDIA

Lanak egiteko epealdia 3 hilabetekoa izango da.

5.- AURREKONTUA

Kontratuaren aurrekontua 60.000 eurokoa izango da, BEZa barne.

6.- ESLEIPEN PROZEDURA

Esleipena Publizitaterik gabeko prozedura Negoziatuaren bidez egingo da, gutxienez hiru eskaintza direlarik.

7.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa aukeratuko den proposamen ekonomikoaren nahiz Gizarte Kontseiluaren dagokion esleipenaren ondorioa izango da.

Eskaintzaileek eskainitako prezio-ek, haien egitura edozein delarik ere, honako hauek barne izan behar dituzte derrigorrez: lanetan eragina izango duten kostuak oro, zuzenak nahiz zeharkakoak, zerbitzuko langileen edo haiei lagunduko dietenen ordainsaria, langileen Gizarte Segurantzaren eta gizarte-kargak, edozein zerga-esparrutako zergak nahiz arielak, BEZa barne, baita industria-etekina bera ere; ondorioz, esleipendunak ezin izango du atal horietako bat ere eskatu eskainia izan den eta UPV /EHUko Gizarte Kontseiluak onartu duen prezioetik kanpo.

Esleipendunak aipatutako prezioei eutsi egingo die kontratuak dirauen epealdi guztian zehar.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

8.- PREZIOAREN ORDAINKETA

Lanak ordainduak izango dira eskainitako zenbatekoa daukan faktura aurkeztu ondoren aurkeztutako lana behin onartuta.

9.- LANAREN JABETZA

Gizarte kontseilua izango da ho-nako kontratu honen helburu den egindako lanaren jabe eskusiboa, haren alderditako edozeinetan.

10.- ERANTSI BEHARREKO BALDINTZA TEKNIKOEN GAINEKO AGIRIAK

Eskaintzaileek aurkeztu beharreko Baldintza Teknikoen gutunazalak honako atal hauek barne izan behar ditu derrigorrez:

- Proposamenaren definitzea
- Egindako lanak.
- Lan egitasmoa.
- Lanari ekingo dion talde tekniko eta profesionalaren osaketa.

11.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Ondoren adierazten dira jasotako proposamenak balioesteko irizpideak eta haiek pisu ponderatuen balioa:

1. Helburuak	%25
2. Metodologia	%25
3. Kronograma	%25
4. Prezioa	%25